

koronabirusaren oinarrizko lexikoa



UZEIrekin lankidetzan




EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



antibiriko; antibiral; birusen kontrako

Birusen ugalketa edo eragina eragozteko gaitasuna duena.



arnasgailu

Arnasketa artifizialerako makina, zainketa intentsiboetan edo anestesiatzean erabiltzen dena. Arnasgailuak bolumetrikoak edo manometrikoak izan daitezke: bolumetrikoetan, arnasgailuak hornitzen duen gasaren bolumenaren bidez kontrolatzen da biriken aireztapena, eta, manometrikoetan, gasaren presioaren bidez.



asintomatiko; sintomarik gabeko

Gaixotasun bat ezagutarazten duen ageriko gertakari klinikorik ez duena.



bakartu

1. Lagunartetik urrundu.
2. Norbait edo zerbait bakarrik jarri, berarekin daudenetatik bereizi.



berrogeialdi

Berrogei eguneko bitartea; bereziki, eritasun kutsakorren bat bide duten pertsonen ezartzen zaien bakarraldia, lehen berrogeiren bat egunekoa zena.



COVID-19

SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako gaixotasuna.



erantzun immunitario

Immunitate-sistemak gorputza antígenoetatik babesteko eragiten duen erreakzio-multzoa.



etxeratze-agindu

Egoera bereziren bat dela eta, ordu batzuetan, bereziki gauaz, kalean ibiltzea debekatzen duen agindua.



gaixotasun-bektore; bektore

Agente patogeno bat organismo ostalaritik beste organismo batera mekanikoki edo biologikoki transmititzeko gaitasuna duen bitarteko izaki biziduna.




immunitate

Gaixotasun infekzioso edo antígeno baten aurka gorputzak duen erresistentzia.



inkubatu

Gaitz infekzioso bat, kutsatzen den unetik lehen sintomak agertzen diren arte, garatu.



karga biriko; birus-karga

Gorputzaren jariakin batean birus jakin batek duen kontzentrazioa, odolean kopia/mililitrotan neurtzen dena. Karga-aldaketa, berriz, logaritmo hamartarretan neurtzen da.



konfinamendu

Konfinatzea; horren ondorioa.



konfinatu

Leku jakin batean, muga jakin batzuetatik irten gabe, bizitzera behartu.



koronabirus

Coronaviridae familiako RNA birusen generoa. Genero horretako birusek arnasbide eta hesteetako hainbat gaixotasun eragiten dituzte (adibidez, COVID-19a, arnas sindrome akutu larria eta Ekialde Hurbileko arnas sindromea).



maskara

Ahoa eta sudurra estaltzen dituen babesgarria, arnasten duena edo haren inguruan dagoena agente patogenoetatik edo toxikoetatik babesteko erabiltzen dena.



nazioarteko osasun-larrialdi

Nazioarteko Osasun Erregelamenduan zehaztutako ezohiko gertaera: estatu bateko gaixotasun bat nazioartean hedatu eta beste estatu batzuen osasun publikorako arriskutsua izan daitekeenez, nazioarteko erantzun koordinatua beharrezkoa izan daiteke hari aurre egiteko.




norbera babesteko ekipamendu; NBE

Langile bakoitzak bere laneko segurtasunaren edo osasunaren kontrako arriskuren batetik babesteko eraman edo eduki behar duen ekipamendua, baita helburu hori bera izan dezakeen beste edozein osagarri edo lagungarri ere.



pandemia

Gaitz epidemikoa, eskualde oso bateko edo lur eremu zabal bateko ia biztanle guztiei eragiten diena.



proba diagnostiko

Gaixotasunaren diagnostikoa lortzeko egiten den proba.



R_0 zenbaki

Gaixotasun infekzioso bat duen pertsona batek ustez beste zenbat pertsona kutsatuko dituen adierazten duen zenbakia.



talde-immunitate

Talde batek gaixotasun baten erasoari aurre egitea, haren kideen proportzio handi baten immunitatearen ondorioz, eta, ondorioz, eragindako subjektu bat beste zaugarri batekin kontaktuan jartzeko probabilitatea murriztea.




test azkar; test laster

Gaixotasun baten diagnostikoa denbora-tarte laburrean eta erraz eskura daitekeen lagin bat erabiliz egiteko erabiltzen den proba.




zainketa intentsiboetako unitate; ZIU

Etengabeko arreta eta zainketa behar duten gaixo larriak tratatzeko ospitale-zerbitzua. Bertan artatzen dituzten pazienteak bizi-arriskuan daudenez, bizi-zeinuak eta bestelako parametroak (likidoen kontrola, esaterako) etengabe monitorizatzen dira.



zoonosi

Animalien parasitoek sortutako eritasun infekziosoak, baldintza naturaletan ornodunetatik gizakira, eta alderantziz, transmititzen dena.



UZEIrekin lankidetzan



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE